

AIARAKO UDALAK 2023ko UZTAILAREN 3an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Prudencio Otegui Echevarría jauna

ZINEGOTZIAK

Karmele Población Martínez andrea
Iñigo Fraile Almanchel jauna
Iratxe Parro Uzquiano andrea
Izaskun García Aresti andrea
Irantzu Apodaca Sánchez andrea
Gentza Alamillo Udaeta jauna
Iñigo Pinedo Vadillo jauna
Montse Angulo Solloa andrea
Itxaso Gorbeña Allende andrea
Unai Campo Arenaza jauna

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita hiruko uztailaren hiruan, bederatziak eta hogeita hamar minutu direnean, Udalbatza Osoa bildu da ezohiko osoko bilkura egiteko. Prudencio Otegui Echevarría alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako gaiak jorratzeari ekin diote:

1.- Udal Talde Politikoen Eraketaren berri ematea

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz taldeen eraketa azaldu du.

Ez da inolako iruzkinik egin, beraz:

IKUSI DA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 73.7 artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL) 34.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, zinegotziak, beren udal-jardueraren ondorioetarako, udal-talde politikoetan eratuko dira.

IKUSI DA.- Udal-talde politikoak eratzeko, talde horien parte izan nahi duten zinegotziek idatzi bat sinatu eta alkateari igorri behar diote. Horretarako, Idazkaritza Nagusian aurkeztu behar dute Udalbatza eratu ondoren eta osoko bilkura egin aurretik, eta hala bozeramailea nola ordezkoa izendatu behar dituzte (ETELren 34.5 artikulua).

AINTZAT HARTU DA.- Udal-taldeak eratzeko idatzi hauek aurkeztu direla, zinegotzi hautetsien sinadurekin:

EH-BILDU UDAL-TALDE POLITIKOA (S.E. zk. 2841 2023/06/21ekoa)

Kideak:

Prudencio Otegui Echevarría

Karmele Población Martínez

Iñigo Fraile Almanchel

Bozeramailea: Karmele Población Martínez

Ordezkoak: Prudencio Otegui Echevarría eta Iñigo Fraile Almanchel

EAJ-PNV AYALA UDAL-TALDE POLITIKOA (S.E. zk. 2862 2023/06/23koa)

Kideak:

Gentza Alamillo Udaeta

Iñigo Pinedo Vadillo

Montse Angulo Solloa

Itxaso Gorbeña Allende

Unai Campo Arenaza

Bozeramailea: Gentza Alamillo Udaeta

Ordezkoa: Iñigo Pinedo Vadillo

AIARA BATUZ - TRABAJANDO POR LOS PUEBLOS HERRIEN ALDE LAN EGITEN UDAL-TALDE POLITIKOA (S.E. zk. 2877 2023/06/06koa)

Kideak:

Iratxe Parro Uzquiano

Izaskun García Aresti

Irantzu Apodaka Sanchez

Bozeramailea: Iratxe Parro Uzquiano

Ordezkoak: Irantzu García Aresti eta Irantzu Apodaka Sánchez

Udalbatza jakinaren gainean geratu da udal-talde politikoaren eraketari buruz eta talde politiko horietako bozeramaile eta ordezkoen izendapenari buruz.

2.- Alkateordeen izendapenaren berri ematea

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz alkateordeak izendatzeko dekretuaren berri eman du. Honela dio hitzez hitz:

“IKUSI DA.- Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 46. artikuluan xedatutakoa. Horren arabera, alkateordeak askatasunez izendatu eta kargugabetuko ditu alkateak, gobernu-batzordeko kideen artetik eta, halakorik ez badago, zinegotzien artetik.

IKUSI DA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.2 artikuluan adierazten da alkateari dagokiola, halaber, alkateordeak izendatzea.

Alkate-udalburu honek hau **EBATZI DU**:

LEHENENGOA.- Honako pertsona hauek alkateorde izendatzea, legez aurreikusitako kasuetan alkatea ordezkatzeko: - Lehen alkateordea: Karmele Población Martínez andrea. - Bigarren alkateordea: Iratxe Parro Uzquiano andrea.

BIGARRENA.- Dekretu hau izendatutako pertsoneri jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Dekretu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Udalbatzari, egiten den lehenengo bilkuran.”

Ez da horri buruzko iruzkinik egin, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3.- Udalbatzaren ohiko bilkuren maiztasuna eta egunak onestea

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz erabaki-proposamena azaldu du.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin, gaia bozkatu da, eta udalbatzako kideek aho batez onartu dute. Ondorioz, eta

IKUSI DA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46. 2 a) artikuluan xedatutakoa. Horren arabera, gurean bezalako 5.000 biztanle arteko udalerrri batean, hiru hilean behin egin behar dira ohiko osoko bilkurak.

IKUSI DA.- Udal honen jardueraren eta lanaren bolumena, eta udal-kudeaketak eskatzen dituen beharrak baloratuta.

AINZAT HARTU DA.- Aurreko guztia, eta Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 47.1 artikuluan, eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 78.1 artikuluan xedatutakoa.

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA.- Udalbatzak hilean behin ohiko bilkurak egitea. Ondorio horietarako, ohiko bilkura hilabete bakoitzeko hirugarren ostegunean egingo da, abuztuan izan ezik, hilabete hori baliogabea izango baita ohiko bilkuretarako. Adierazitako eguna egun baliogabea bada, aurreko egun baliodunean egingo da. Ohiko bilkurak 19:00etan egingo dira.

4.- Informazio Batzordeak eta Kontuen Batzorde Berezia eratzea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz erabaki-proposamena azaldu du. Adierazi du sei informazio batzorde onestea proposatzen dela, EH BILDU talde-politikoko bi kidek, AIARA BATUZ talde-politikoko bi kidek, eta EAJ-PNV talde-politikoko hiru kidek osatuak, eta horietatik bost hilabete bakoitzeko bigarren asteartean (goizean) egitea proposatzen dela, eta bat, kultura, kirola, hezkuntza euskara eta gazteria informazio batzordea, hileko bigarren asteazkenean (arratsaldean) egitea proposatzen dela. Hori guztia inplikaturako teknikariek eta Aiarako Kuadrillarekin hitz egin da, eta ez dute eragozpenik jarri, bi arrazoirengatik: lehenengoa, zinegotzi arduradunak ezin duelako goizean bere gain hartu; eta, bigarrena, herritarren parte-hartze handiena izan dezakeen batzordea denez, egokiagoa dirudielako arratsaldean izatea parte-hartze hori bultzatzeko.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta euskaraz adierazi du asko harritu diela sei informazio batzorde sortzeko proposamenak, bakoitza zazpi kideekin; izan ere, 2019an, Karmele Población andreak berariaz esan zuen hain batzorde handiek kostu ekonomikoari eta lanaren antolaketari eragiten zietela, eta orain batzorde bat gutxiago proposatzen da, pertsona kopuru berarekin. Gainera, Iratxe Parro andreak, 2019an, esan zuen beraiek proposatzen zutela batzordeen kopurua murriztea eta, Eudelek proposatzen zuen moduan, hiru batzordetan sinplifikatzea. Hori oposizioan zeudenean proposatu zen, eta orain gobernu-taldean daudenez, irizpidea aldatzen da. Bestalde, gaineratu du ondo ikusten dutela batzordeak arratsaldez egitea, baina ez daudela ados batzuk goizez eta beste batzuk arratsaldez izatearekin; izan ere, arrazoia herritarren parte-hartzea bada, gainerako batzordeetan ere parte hartzea bultzatzen da arratsaldez badira, eta, beraz, guztiak arratsaldez izatea proposatu du, proposatzen den moduan lanean bi egun eskatu behar direlako, eta hori eragozpen handiagoa da. Gainera, Udaleko langile bati eta Kuadrillako teknikariei arratsaldeetan sartutako orduak errekupeatzeko orduak eman beharko zaizkie. Gaineratu du parte-hartzea bultzatzeko beste modu batzuetara egin daitekeela, eta ez bakarrik batzordeen bidez. Parte hartzea bultzatu daiteke, halaber, bileren deialdiarekin.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz adierazi du batzordeak nola antolatu aztertzen aritu direla, eta lan egiteko modurik onena sei izatea iruditu zaiela. Ordutegiari dagokionez, gaineratu du aurreikusita dagoela elkarteekin eta Administrazio Batzarrekin bilerak arratsaldez egitea.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin, gaia bozkatu da, eta emaitza hau izan da:

ALDEKO BOTOAK: 6 (3 EH BILDU + 3 AIARA BATUZ).

AURKAKO BOTOAK: 5 EAJ-PNV

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 20.1 c) artikulua honako hau xedatzen da: “c) 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, baita gutxiagokoetan ere, bertako erregelamendu organikoan hala xedatu edo osoko bilkurak hala erabakitzen bada, eta bertako autonomia-leggedian eremu honetarako bestelako antolakuntzarik aurreikusi ez bada, beste organo batzuk egongo dira, osoko bilkuraren erabakipean jarriko diren gaiak aztertu, horien gainean txostena egin zein horietaz aholkua emateko, eta alkatearen, tokiko gobernu-batzarraren eta eskuordetzan emandako eskumenak dituzten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egiteko, osoko bilkurari dagozkion kontrol-eskumenen aurka jarri gabe. Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek izango dute aipatutako organoetan parte hartzeko eskubidea, taldeotako zinegotziak organo horietan egonda, osoko bilkuran duten zinegotzi-kopuruaren arabera”.

IKUSI DA.- Aipatutako artikulua arabera, Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek izango dute aipatutako organoetan parte hartzeko eskubidea, taldeotako zinegotziak organo horietan egonda.

IKUSI DA.- Ezarritako eskubide hori Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 29.2 artikuluan zehazten da. Lege horren bidez, Informazio Batzorde horiek osatzeko irizpideak zehazten dira.

IKUSI DA.- Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 123. artikulutik 127. artikulura xedatutakoa.

IKUSI DA.- Aipatutako azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu horren 124.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, informazio batzorde iraunkorren hasierako kopurua eta izena, bai eta udal-agintaldian zehar batzorde horietan edozein aldaketa egitea ere, Udalbatzak hartutako erabakiaren bidez erabakiko da, alkatea-udalburuak proposatuta, eta, ahal den neurrian, udal-zerbitzuak egituratzen diren arlo handien kopuruaren eta izendapenarekin bat etortzeko ahalegina egingo da.

AINZAT HARTU DA.- Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua 125. artikulua ezartzen du Informazio Batzordeen osara Udalbatzan ordezkaturik dauden talde politikoaren arteko proportzionaltasunera egokitu behar dela, eta EAJ-PNV Taldeko HIRU pertsonak, EH-BILDUko bi pertsonak eta AIARA BATUZeko bi pertsonak osatutako eraketa proposatzen da.

AINZAT HARTU DA.- Aiarako Udaleko Informazio Batzordeen funtzionamendua arautzen duen Erregelamendu Organikoa, 2020ko urtarrilaren 20ko ohiko osoko bilkuran onetsia eta 2020ko abuztuaren 10eko ALHAOn (90. zk.) argitaratua.

Udalbatza Osoak, gehiengo osoz, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA.- Zerrendatzen diren Informazio Batzorde Iraunkorrak eratzea, honako izen hauekin:

- KULTURA, KIROLA, HEZKUNTZA EUSKARA ETA GAZTERIA INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE CULTURA, DEPORTE, EDUCACIÓN, EUSKERA Y JUVENTUD.

- BERDINTASUNA, INMIGRAZIOA ETA ADINEKOAK INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE IGUALDAD, INMIGRACIÓN, Y PERSONAS MAYORES.

- HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE URBANSIMO Y OBRAS Y SERVICIOS.

- LEHEN SEKTOREA, EKONOMIA SUSTAPENA ETA ENPLEGUA INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE SECTOR PRIMARIO, PROMOCIÓN ECONÓMICA Y EMPLEO.

- INGURUMENA, MUGIKORTASUNA, FUNTZIO PUBLIKOA ETA SOZIO-SANITARIOA INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE MEDIO AMBIENTE, MOVILIDAD, FUNCIÓN PÚBLICA Y SOCIO-SANITARIA.

- OGASUNA, KONTUEN BEREZIA ETA BATZORDE ADMINISTRATIBOAK INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE HACIENDA, ESPECIAL DE CUENTAS Y JUNTAS ADMINISTRATIVAS.

BIGARRENA.- Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 125. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Udalbatzako alkatea-udalburua da horien guztien burua; hala ere, benetako udalburutza Udalbatzako edozein kideri eskuordetu ahal izango dio, eta, beraz, laugarren puntuan aipatzen diren Informazio Batzordeen benetako udalburutza eskuordetzea proposatzen da.

HIRUGARRENA.- Honako hau izango da Informazio Batzorde Iraunkorren deialdia egiteko aldizkakotasuna, batzordeburuaren iritziz aztertu beharreko gaiak baldin badaude:

- Ohiko bilkurak egingo dituzte, hilabete bakoitzeko bigarren asteartean, deialdi bakoitzean adierazten den orduan, goizeko 08:30ean hasita, honako Informazio Batzorde Iraunkor hauek:

- BERDINTASUNA, INMIGRAZIOA ETA ADINEKOAK INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE IGUALDAD, INMIGRACIÓN, Y PERSONAS MAYORES

- HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE URBANSIMO Y OBRAS Y SERVICIOS.

- LEHEN SEKTOREA, EKONOMIA SUSTAPENA ETA ENPLEGUA INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE SECTOR PRIMARIO, PROMOCIÓN ECONÓMICA Y EMPLEO.

- INGURUMENA, MUGIKORTASUNA, FUNTZIO PUBLIKOA ETA SOZIO-SANITARIOA INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE MEDIO AMBIENTE, MOVILIDAD, FUNCIÓN PÚBLICA Y SOCIOSANITARIA.

- OGASUNA, KONTUEN BEREZIA ETA BATZORDE ADMINISTRATIBOAK INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE HACIENDA, ESPECIAL DE CUENTAS Y JUNTAS ADMIANITRATIVAS.

- Ohiko bilkurak egingo dituzte, hilabete bakoitzeko bigarren asteazketan, deialdi bakoitzean adierazten den orduan, arratsaldeko 18.00etan hasita, honako Informazio Batzorde Iraunkor hauek:

- KULTURA, KIROLA, HEZKUNTZA EUSKARA ETA GAZTERIA INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE CULTURA, DEPORTE, EDUCACIÓN, EUSKERA Y JUVENTUD.

Adierazitako eguna jaieguna bada, aurreko edo ondorengo egun baliodunean egingo dira.

LAUGARRENA.- Informazio Batzorde Iraunkorrek EAJ-PNV taldeko HIRU pertsonak, EH-BILDUKO bi pertsonak eta AIARA BATUZeko bi pertsonak osatuko dituzte, eta honako hauek izango dira batzordeburuak:

- KULTURA, KIROLA, HEZKUNTZA EUSKARA ETA GAZTERIA INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE CULTURA, DEPORTE, EDUCACIÓN, EUSKERA Y JUVENTUD.

Batzordeburua/Presidenta: IÑIGO FRAILE ALMANCHEL

Ordezkoa/Suplente: KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ

- BERDINTASUNA, INMIGRAZIOA ETA ADINEKOAK INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE IGUALDAD, INMIGRACIÓN, Y PERSONAS MAYORES

Batzordeburua/Presidenta: IRANTZU APODACA SÁNCHEZ

Ordezkoa/Suplente: IRATXE PARRO UZQUIANO

- HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE URBANSIMO Y OBRAS Y SERVICIOS.

Batzordeburua/Presidenta: IZASKUN GARCÍA ARESTI
Ordezkoa/Suplente: IRATXE PARRO UZQUIANO

- LEHEN SEKTOREA, EKONOMIA SUSTAPENA ETA ENPLEGUA INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE SECTOR PRIMARIO, PROMOCIÓN ECONÓMICA Y EMPLEO.

Batzordeburua/Presidenta: IRATXE PARRO UZQUIANO
Ordezkoa/Suplente: IRANTZU APODACA SÁNCHEZ

- INGURUMENA, MUGIKORTASUNA, FUNTZIO PUBLIKOA ETA SOZIO-SANITARIOA INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE MEDIO AMBIENTE, MOBILIDAD, FUNCIÓN PÚBLICA Y SOCIO-SANITARIA.

Batzordeburua/Presidenta: KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ
Ordezkoa/Suplente: PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA

- OGASUNA, KONTUEN BEREZIA ETA BATZORDE ADMINISTRATIBOAK INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRA/ COMISIÓN INFORMATIVA PERMANENTE DE HACIENDA, ESPECIAL DE CUENTAS Y JUNTAS ADMIANITRATIVAS.

Batzordeburua/Presidenta: PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA
Ordezkoa/Suplente: KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ

BOSGARRENA.- Informazio Batzordeen deialdia batzordeburuak egingo du, gutxienez bi egun lehenago, aztertu beharreko gaiak jasotzen dituen deialdi baten bidez, batzordeetako kideei zuzenduta. Era berean, aztergaien zerrendan ez dauden gaiak aztertu ahal izango dira, alde aurretik premiazkotzat jo ondoren.

Bilkurak baliozkoak izateko, beharrezkoa da Batzordeko kideen (titularrak edo ordezkoak) gehiengo osoa egotea lehenengo deialdian, eta gutxienez hiru kide bigarren deialdian, ordubete geroago. Nolanahi ere, beharrezkoa izango da batzordeburua eta batzordeko idazkaria bertaratzea.

SEIGARRENA.- Informazio Batzordeek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 20. artikulua esleitzen dizkien eginkizunak izango dituzte.

ZAZPIGARRENA.- Informazio Batzorde guztien funtzionamendua Aiarako Udaleko Informazio Batzordeen funtzionamendua arautzen duen Erregelamendu Organikoan (2020ko urtarrilaren 20ko ohiko osoko bilkuran onetsia eta 2020ko abuztuaren 10eko ALHAOn (90. zk.) argitaratua) xedatutakora egokituko da, eta erregelamendu horretan xedatzen ez dena Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 123. artikulutik 126. artikulura eta 134. artikulutik 138. artikulura jasotakora.

5.- Zinegotzien dietak eta kalte-ordainak eta talde-politikoaren esleipenak onestea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza, eta euskaraz erabaki-proposamena azaldu du.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza, euskaraz alkatearen arduraldia eta soldatari buruz galdetzeko, ez dutelako jasota ikusi.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) euskaraz erantzun dio oraindik ez dela erabaki, eta horregatik ez dela erabaki-proposamenean adierazten.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza euskaraz adierazteko gauza bat ordainsaria dela, eta beste bat arduraldia; arduraldia ere ez da jasota agertzen.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) erantzun dio Pruden, printzipioz, zortziretatik hirurak arte egongo dela udaletxean.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) euskaraz galdetu du ea beste organoetako bileretara bertaratzeagatik izendapenak kobratuko diren.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) erantzun dio oraindik ez dela erabaki, eta berriz irailean eztabaidatuko dela.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin eta gaia bozkatu da, zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 75. bis artikularen 3. atalak honako hau ezartzen duela: “Ez arduraldi eksklusiborik ez arduraldi partzialik ez duten toki-korporazioko kideek baino ez dituzte jasoko beren korporazioko kide anitzeko organoetako bilkuretara benetan joatearren dagozkien laguntzak, korporazioko osoko bilkurak adierazitako kopurukoak”.

IKUSI DA Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 73.3 artikulua, besteak beste, honako hau ezartzen duela: “Korporazioko osoko bilkurak diru-zuzkidura bat izendatu dezake talde-politikoentzat korporazioko urteko aurrekontuen kontura; osagai bat finkoa izango da, talde guztientzat berdina, eta beste osagaia aldakorra, talde bakoitzeko kide-kopuruaren arabera, Estatuko aurrekontu orokorren legeetan orokorrean ezar daitezkeen mugen barruan; eta ezin izango dira erabili korporazioaren zerbitzura diharduten ezelango langileen lansariak ordaintzeko, ez eta ondare moduan aktibo finkoak eratzeko balio dezaketen ondasunak eskuratzeko ere”.

IKUSI DA Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 75.4 artikulua honako hau ezartzen duela: “Toki-korporazioetako kideek beren karguak betetzean benetan egindako gastuen kalte-ordainak jasoko dituzte, administrazio publikoetan orokorrean aplikatzekoak diren arauen arabera, eta haien garapenean korporazioko osoko bilkurak onar ditzen arauen arabera hain zuzen”.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA.- - Arduraldi-motarik ez duten Udalbatzako kideek, ez partziala eta ez eskusiboa, honako zenbateko hauek jasoko dira kide anitzeko organoetara benetan bertaratzegatik:

- OHIKO OSOKO BILKURETARA bertaratzegatik..... 170 euro/gordin
- EZOHIKO OSOKO BILKURETARA bertaratzegatik 30 euro/gordin

Jarraian bi osoko bilkura egiten direnean, bakarrera joategatik bakarrik ordainduko da, zenbateko handienekoa.

- INFORMAZIO BATZORDEETARA bertaratzegatik

* Kide gisa 30 euro/gordin
240 euro/gordin

Hilabete berean bigarren aldiz edo jarraian arlo bereko batzordearen bilerak egiten badira, ezohikotzat joko dira, eta jaso beharreko dietak 30 euro gordinekoak izango dira, presidentearantz zein kideentzat.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 75. bis artikuluan 3. atalaren arabera, bertaratzeko horiek “kide anitzeko organoetako bilkuretara benetan joatearren” jasoko dira; hortaz, bertaratu ezean, ez dira jasoko.

BIGARRENA.- - Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 73.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, eraturako udal talde-politikoei 225 euro/hilabete-ko osagai finkoko zuzkidura ekonomikoa esleituko zaie bakoitzari, eta 65 euro/hilabete-ko osagai aldakorra, osatzen duten zinegotzi bakoitzarentzat.

Talde-politikek zuzkidura horren kontularitza espezifikoa izan beharko dute, eta Udalbatzak eskatzen duen guztietan bere eskura jarriko du. Edozein kasutan, zenbateko horiek ezingo dira inoiz Udalbatzaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ordaindu edo ondare-izaerako aktibo finkoak izan litezkeen ondasunak erosteko erabili.

HIRUGARRENA.-Lekualdatzeko, jateko, gauak pasatzeko eta abarreko dietak zinegotzientzat izango dira, langileentzako erregimen eta zenbateko berdinean, eta dagokion Hitzarmenean horri buruz xedatutako hizpaketak zorrozki aplikatu beharko dira.

LAUGARRENA. - Taldeentzako esleipen gisa adierazitako kopuruek, eta kide anitzeko organoetarako laguntzen kontzeptuarekin finkatutakoek eragina izango dute 2023ko ekainaren 17tik aurrera.

BOSGARRENA. - Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Udalbatzaren iragarkien taulan argitaratzea, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 75. artikuluko 5. atalean xedatutakoari jarraikiz.

6.- Aiarako Kuadrillako udal-ordezkarriak izendatzea.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA. - Eskualdeei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren (1989ko azaroaren 11ko 142 zenbakidun ALHAO) 14.2 artikuluan xedatutakoarekin bat: "

... 2.- Eskualde Batzarra Eskualde Batzarkideek osatzen dute, eta hauek Eskualdea osatzen duten Udalerrietako Osoko Udalbatzak bere zinegotzien artetik izendatzen dituzte, honako eskalaren arabera: a) 500 biztanletik beherako Udalerriak, batzarkide bat. b) 501 eta 1.000 biztanleren arteko Udalerriak, bi batzarkide. c) 1.001 eta 2.000 biztanleren arteko Udalerriak, hiru batzarkide. d) 2.001 eta 5.000 biztanleren arteko Udalerriak, bost batzarkide. e) 5.001 eta 10.000 biztanleren arteko Udalerriak, zazpi batzarkide. f) 10.001 eta 20.000 biztanleren arteko Udalerriak, bederatzi batzarkide. g) 20.000 biztanletik gorako Udalerriak, hamabi batzarkide. Eskualdeei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 14.2 f) artikuluan xedatutakoarekin bat, Aiarako Udalarri bere zinegotzien artean bost batzarkide esleitzea dagokio, biztanle-kopurua dela eta (2.001 eta 5.000 artean...)"

Hortaz udalerrri honetako biztanleen arabera, bost batzarkide izendatzea dagokigu.

IKUSI DA. - Postuak partidu, koalizio eta federazioen eta hautesle-elkarteen artean banatuko dira, baldin eta toki-hauteskundeetan zinegotziren bat lortu badute, Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 163. artikuluan aurreikusitako prozedura aplikatuz, talde-politiko bakoitzak lortutako boto-kopuruaren arabera.

AINTZAT HARTU DA. - 2023/06/20an Aiarako Kuadrillak bidalitako idazkia; bertan Udal honi jakinarazi zioten aukeratzeko dagokien batzarkideen kopurua 5 dela, eta, hauteskundeetako emaitzen arabera, honela banatu direla: 3 EAJ-PNV dagozkio, 1 AIARA BATUZ taldeari eta 1 EH BILDURI.

AINTZAT HARTU DA. - Izendapena Udalbatzak egin behar duela eratzten denetik bi hilabeteko epean, eta Arabako Batzar Nagusiei jakinarazi behar zaiela,

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA. - Udal honi dagozkion Aiarako Kuadrillako Batzarraren bost batzarkideak izendatzea, Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 163. artikuluan aurreikusitako prozedura aplikatuz banatuak, talde-politiko bakoitzak lortutako botoen arabera. Honela geratu dira izendapenak:

- EAJ-PNV udal talde-politikoak:

Gentza Alamillo Udaeta jauna.
Iñigo Pinedo Vadillo jauna.
Montse Angulo Solloa andrea.

- AIARA BATUZ udal talde-politikoak:

Iratxe Parro Uzquiano andrea.

- EH-BILDU udal talde-politikoak:

Prudencio Otegui Echevarría jauna.

BIGARRENA. - Erabaki honen berri ematea Arabako Batzar Nagusiei eta Aiarako Kuadrillari, jakinaren gainean egon daitezten.

7.- Gorobel Mendilerroko Antzinako Ermandadearen Batzordeko kidea izendatzea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz erabaki-proposamena azaldu du.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) hartu du hitza azaltzeko, puntuaren harira, mendilerroan ponpak huts egin duela. Juan Carlos goizean joango da beste bat jartzera, hortaz, printzipioz, arazoa konponduta geratuko da.

Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko arazo aizan dela ponpa hutsean egon dela funtzionatzen egun asko, eta erre da.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin, gaia bozkatu da, eta emaitza hau izan da:

ALDEKO BOTOAK: 6 (3 EH BILDU + 3 AIARA BATUZ).

ABSTENTZIOAK: 5 EAJ-PNV
Hori dela bide, eta

IKUSI DA. - Tokiko hauteskundeak egin ondoren, 2023ko maiatzaren 28an, toki-korporazioak berri-itu dira, eta, ondorioz, Udal honetako ordezkari-izendaketa-karguak ordezkatu behar dira beste entitate edo instituzioetan.

AINZAT HARTU DA. - Ayala-Aiarako Udalak Gorobel Mendilerroko Antzinako Ermandadearen ordezkaria izendatu behar duela.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA. - Udal honetako kide eta ordezkari gisa honako pertsona hauek izendatzea Gorobel Mendilerroko Antzinako Ermandaderako:

Iratxe Parro Uzquiano andrea
* Ordezkoa: Irantzu Apodaca Sánchez

BIGARRENA. - Erabaki honen berri ematea Gorobel Mendilerroko Antzinako Ermandadeari, jakinarenean gainean egon dadin.

9.- Udal-ordezkarien izendapenen berri ematea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz udal-ordezkarien izendapenen dekretuen berri eman du, zeinek hitzez hitz honako hau dioten:

“IKUSI DA. - Tokiko hauteskundeak egin ondoren, 2023ko maiatzaren 28an, toki-korporazioak berri-itu dira, eta, ondorioz, Udal honetako ordezkari-izendaketa-karguak ordezkatu behar dira beste entitate edo instituzioetan.

AINZAT HARTU DA. - Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 b) artikularen arabera, alkatea Udalaren ordezkari naturala da, eta Zabaia Landa Garapenerako Elkarteak arautzen duten Estatutuek ez dutela exijitzen Udalbatzak Udaleko ordezkaria izendatzea.

Alkate-udalburu honek hau **EBATZI DU**:

LEHENENGOA. - Zabaia Landa garapenerako Elkartean udal-ordezkaririk izendatzea **KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ ANDREA**, eta ordezkari **PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA JAUNA** izango da.

BIGARRENA. - Erabaki honen berri ematea Zabaia Landa Garapenerako Elkarteari, jakinaren gainean egon dadin.

HIRUGARRENA. - Dekretu honen berri ematea Udalbatzari, egiten den lehenengo osoko bilkuran”.

“IKUSI DA. - Tokiko hauteskundeak egin ondoren, 2023ko maiatzaren 28an, toki-korporazioak berritu dira, eta, ondorioz, Udal honetako ordezkari-tza-karguak ordezkatu behar dira beste entitate edo instituzioetan.

AINTZAT HARTU DA. - Ayala-Aiarako Udalak ordezkari-tza duela Zaraobe Institutuko, Etxaurren Ikastolako, Etxaurren Haurreskolako eskola-kontseiluetan eta Aiaraldea Euskara Kontseiluan.

AINTZAT HARTU DA. - Estatutu horiek ez dutela exijitzen Udalbatzak udal-ordezkaria izendatzea, eta Udaleko ordezkari naturala Alkate-Udalburua dela (Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 b) artikulua).

Hori guztiagatik, eta Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 s) artikuluan xedatutakoarekin bat, Alkatetza-Udalburutza honek honako hau **EBATZI DU**:

LEHENENGOA. - Zaraobe Institutuko, Etxaurren Ikastolako, Etxaurren Haurreskolako eskola-kontseiluetan eta Aiaraldea Euskara Kontseiluan udal-ordezkari izendatzea IÑIGO FRAILE ALMANCHEL JAUNA, eta ordezkaria KARMELE POBLACIÓN MARTÍNEZ ANDREA izango da.

BIGARRENA. - Erabakiaren berri ematea Zaraobe Institutuari, Etxaurren Ikastolari, Etxaurren Haurreskolari eta Aiaraldea Euskara Kontseiluari, jakinaren gainean egon daitezten.

HIRUGARRENA. - Dekretu honen berri ematea Udalbatzari, egiten den lehenengo osoko bilkuran”.

Ez da inolako iruzkinik egin, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

9.- Kontratazio-mahaiaren eraketa, osoko bilkurara kontratazio-organo gisa bertarutzen denean.

Karmelee Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta erabaki-proposamena azaldu du euskaraz.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, zinegotziek aho batez onetsi dute, eta hori dela bide,

IKUSI DA. - Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak toki-entitateen kontratazioaren arloko eskumenak arautzen ditu, eta horren eskumenez, kontratazio-mahaiek honela osatuko dira:

1. Udalburutza:

Kontratazio-mahaiko presidentea Udalbatzako kide bat edo horretako langile funtzionario bat izango da.

2. Kideak:

- Idazkari nagusia
- Esku-hartzaile nagusia
- Karrerako funtzionario langilea (edo, behar bezala gaituta dagoen karrerako funtzionario langileak ez badaude, bitarteko langileak).
- Langile lan-kontratudunak
- Udalbatzako kide hautatuak. Edozein kasutan, hautatutako kideak ezin dira bertako kide guztien 1/3 baino gehiago izan.

3. Idazkaria

Mahaiko idazkaria Udalbatzako funtzionario bat izango da.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA. - Kontratazio-organo gisa osoko bilkurara bertaratuko den behin betiko Kontratazio-mahaiaren eraketa onestea, honako pertsona hauek kide direla:

- Presidentetza:

- Alkatea-Udalburua edo berak eskuordetutako pertsona.

- Kideak:

• Udalbatzako idazkari kontu-hartzaileak edo bere zereginetarako legez ordezkatzeko duen pertsona.

- Udalbatzako funtzionario bat.

- Idazkaritza:

- Udalbatzako funtzionario bat.

BIGARRENA. - Kontratazio-mahaiari Udalak egindako osoko bilkuren eskumena diren kontratuak (administraziokoak zein pribatuak) prestatu, adjudikatu eta egikaritzeari buruzko eskumenen multzoa dagokio, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2018 Legean eta, kasuaren arabera, hori ordeztzen duten aplikatzeko gainerako lege eta/edo arauetan xedatutakoarekin bat.

Edozein kasutan, kide anitzeko organo gisa duen funtzionamenduak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituko dio.

HIRUGARRENA. - Erabaki honen berri ematea udal-zerbitzu guztiei, baita mahaiko kideei ere (titularrak eta ordezkioak). Era berean, erabaki hau argitaratuko da kontratazio-organoaren profilean eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean.

10.- Urbide-Arabako Ur Partzuergoan Udaleko ordezkaria izendatzea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz proposatutakoa azaldu du.

Adierazitakoaren interpretazioan egondako akatsagatik, ez da gaia bozkatu. Hortaz, ez da inolako erabakirik hartu.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hamarrak eta sei minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita hiruko uztailaren hiruan.

O. E.
ALKATE-UDALBURUA.

Stua.: Prudencio Otegui Echevarría.

IDAZKARIA,

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.